



HIZKUNTZA GAITASUNA SENDOTZEKO IKASTAROA

INFORMAZIO OROKORRA

IZENA EMATEKO EPEA	2016ko urtarrilaren 26tik otsailaren 15era	ZERRENDAK ZUZENDARITZA NAGUSIRA BIDALTZEKO AZKEN EGUNA	2016ko otsailaren 29a
IKASLE KOPURUA	15 gehienez ere • Emergentziak 1 • Arabako ESI 9 • Debagoieneko ESI 2 • Arabako Osasun Mentaleko Sarea 1 • Arabako Errioxa –Rioja Alavesa ESI 1 • Transfusioak 1	HARTZAILEAK	Hurrengo zerbitzu-erakundeetako langileak Emergentziak Arabako ESI Debagoieneko ESI Arabako Osasun Mentaleko Sarea Arabako Errioxa –Rioja Alavesa ESI Transfusioak
BETE BEHARREKO BALDINTZAK	3HE egiaztatuta izatea edo, egiaztatu izan ez arren, egiaztagiri hori lortzea ahalbidetzen duen euskara mailatik hurbil egotea.		
AUKERAKETA IRIZPIDEAK	1. Langile finkoak, bitartekoak eta behin-behinekoak, hurrenkera horretan. 2. Lanpostuak derrigortasun-data edukitzea. 3. Lanpostua dagoen unitatearen lehentasuna zerbitzu-erakundearen Euskara Planaren arabera.		

IKASTAROARI BURUZKO INFORMAZIOA

DATAK	2016 apirilak 6, 13, 20; maiatzak 4, 11 18, 36 eta ekainak 1	TOKIA/IKASGELA	Gasteiz – Txagorritxu Ospitalea – irakaskuntza gela
IRAUPENA	40 ordu	ORDUTEGIA	08:30 – 13:30
MATERIALA	Ikastaroan banatuko da		
IRAKASLEA ETA DISEINUA	AEK		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	▪ Langileek hizkuntza gaitasunak sendotzea, euskararen erabilera areagotzea eta lanean hizkuntza erabiltzeko beldurrak kentzen laguntzea.
HELBURU ZEHAZTAK	▪ Laguntza eskaintzea hizkuntza zuzen eta egoki erabiltzeko eguneroko jardueran. ▪ Langileei euskara eguneroko lanean aplikatu dezaten baliabideak ematea. ▪ Erregistro formala eta informala bereizten eta desberdin erabiltzen ikastea. ▪ Ahozko erregistroaren berezko ezaugarriei eta baliabideei jabetzea. ▪ Erabilera motibatzea eta erabileraren oztopo psikologiko eta linguistikoak kentzea. ▪ Mintzamenean errepikatzen diren akatsak zuzentzea. ▪ Ahozko komunikazio egokia, zuzena eta erraza lortzea, herritarrengandik hurbil.

PROGRAMA ETA EBALUAKETA

METODOLOGIA	Teoria eta praktika uztartuko dira ikastaroan zehar, nahiz eta alde praktikoak lehentasuna izango duen.
IKASTAROAREN EZAUGARRIAK	- Ikastaro hauek dagokien hizkuntza-eskakizunetik gertuko maila duten langileentzat dira. - Ikastaroak ez dira egokiak izango, adibidez, idazki-mota jakinak landu nahi dituzten langileentzat, edota behar espezifiko zehatzak dituzten langileentzat. Ikastaroan administrazioko jardunarekin zerikusia duten idazkiak, gaiak edota ariketak landuko badira ere, birziklatzeko ikastaroen planteamendua ikuspuntu orokorretik dago bideratuta. - Ikastaroaren osagarri moduan etxerako lanak bidaliko dira - Ikastaroan bi osagai hartuko dira kontuan ahozko jariootasunari dagokionez: - Osagai espezifikoak: laneko egoera eta eginbehar arruntak. - Osagai orokorra: hizkera informala.
PROGRAMAZIOA	Euskaltzaindiaren arauak Ikasleen zalantzak eta akats gramatikalak Lexikoa - Lexiko teknikoak egoki erabiltzeko estrategiak - Lexikoa ezberdindu erregistroaren arabera Idazmena Testu antolaketa eta gaiaren garapena Testu egokiak eta argiak egiteko hainbat baliabide Testu era ezberdinak landuko dira. Entzumena Lagunarteko solasak, telefonozko elkarrizketak, bat-bateko topaketak berriak, kronikak, eta laneko azalpenak Mintzamena Ahoskera - Arauak azaldu - Ahots gorako irakurraldiak Egokitasuna - Erregistro jasotik lagunartekora - Lagunarteko erregistroa - Erregistro jasoa Argitasuna - Azalpen argiak emateko baliabideak: Zuzentasuna Ahozko jardunetan egindako errorearen gainean espresuki sortutako ariketak, edo emandako azalpenak Jariorotasuna - Landutako zenbait baliabidek bereziki eragiten diote hizkuntzaren jariootasunari, horiek erabiliz irabazten baitu ziurtasunean eta bizitasunean, eta horren ondorioz, jarioan.
EBALUAKETA	Proba bat egongo da ikastaroaren amaieran eta gainditu egin behar da GAI kalifikazioa lortu ahal izatek
IKASTAROAREN BALORAZIOA	- Ikasleen gogobetetze inkesta - Irakaslearen gogobetetze inkesta
ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA	- Bete beharreko baldintza: %80ko bertaratzea - Aprobetxamendu proba gainditzea
ANTOLATZAILEA	EUSKARA ZERBITZU KORPORATIBOA